



AUKERA
BERDINTASUNA
IGUALDAD DE
OPORTUNIDADES
DURANGO
Udala • Ayuntamiento


Aukera Berdintasuna

Igualdad de oportunidades

Zeharkalea, 3
48200 DURANGO
Tel.: 94 603 00 42
Fax: 94 603 00 24
E-mail: berdintasuna@durango-udala.net

**“ETXEAN TRATU TXARRAK JASO DITUZTEN
EMAKUMEENTZAKO ABEGI-ETXEAREN BARNE-
ERREGIMENENKO ARAUTEGIA.”**

- Hasierako onarpena: Osoko Bilkurak, 2007/10/25
- [Argitalpen osoa: BAOn, 240. zk., 2007/12/11](#)
- Behin-betiko onarpena: Osoko Bilkurak
- [Argitalpen osoa: BAOn, 24. zk., 2008/02/04](#)



“ETXEAN TRATU TXARRAK JASO DITUZTEN EMAKUMEENTZAKO ABEGI-ETXEAREN BARNE-ERREGIMENENKO ARAUTEGIA.”

1.- XEDAPEN OROKORRAK.

Arautegi honek udal-titulartasuneko abegi-etxeak emango dituen zerbitzuak arautzea du helburu. Abegi-etxe hori etxean tratu txarrak jaso dituzten emakumeak hartzeko da.

Arautegi honen ondorioetarako, hauxe da etxean tratu txarrak jasotzea: gaur egungo edo aurreko familia eremuan nahiz eremu afektiboan, emakumearen aurka indarkeria fisikoa, psikikoa, sexuala edo beste era batekoa erabiltzea, emakumea azpiratu, menperatu eta harremanean autoritate eta agintea izateko. Horren ondorioa emakumeari sufrimendua eragitea edo kalte psikiko edo fisikoa eragitea da edo hori izan daiteke.

Abegi-etxearen helburua etxean babesik ez duten edo tratu txarrak jaso dituzten emakume guztiak eta horien seme-alabak aldi baterako hartzea da, eta, era berean, denbora eta lekua eskaintzea, patxadaz, beren egoera pertsonalaz eta etorkizunaz hausnarketa egiteko.

Aldi berean, Oinarrizko Gizarte-zerbitzuek dauden baliabideei buruzko informazioa emango diete eta baliabide horiek eskuratzeko zer egin dezaketen esan.

Durango Udalak emakumeentzako abegi-etxearen zerbitzua emateko ardura hartu du bere gain, eta Gizarte Ekintza sailak kudeatuko du.

Udalaren Oinarrizko Gizarte-zerbitzuen Sailak bideratuko ditu abegi-etxea erabili ahal izateko eskari guztiak.

2.- HELBURUAK

Hauek dira etxe-eremuan tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeak artatzeko baliabideen helburuak:

Familia-eremuan edo bizikidetzan jasandako indarkeriagatik ohiko etxebizitza utzi behar duten emakumeei eta haien beharra duten pertsonen (beren kargura dauden seme-alabak, adin txikikoak izan edo ez, edota menpeko pertsona helduak) behin-behineko ostatua ematea.

Pertsona horiei, inguru seguru batean, beren egoera pertsonalerako eta familiarerako beharrezko iruditzen zaizkien aldaketei eta egin nahi dituzten aldaketei heltzeko denbora eta laguntza egokia eskaintzea, eta aldaketa horiek egia bihurtzeko hartu behar dituzten erabakietan laguntzea.


Egoera horri modu egokian aurre egiteko autonomia pertsonala sustatzea; horretarako beharrezko dituzten aholkuak, informazioa eta laguntza eskainiko zaizkie baita laguntza-baliabide proposenak eskuratzeko erraztasunak eman ere.

Etengabe, beharren arabera konpainia eta gizarte-babesa eskaintzea.

Artatutako pertsonen segurtasun fisikoa eta psikikoa bermatzea.

3.- ONURADUNAK.

Arautegi honek araututako abegi-baliabideen bidez artatutako pertsonak honako hauek dira:



Adinez nagusi diren emakumeak edo emantzipatuta dauden adin txikiko emakumeak. Emakume horiek premiazko babesa eta behin-behineko ostatua behar dute, familia-eremuan edo bizikidetzan genero indarkeria jasan eta beren ohiko etxebizitza utzi egin behar izan dutelako.

a) atalean aipatutako emakumeen kargura dauden pertsonak, hau da, beren kargura bizi diren seme-alabak –adin txikikoak izan zein ez– edota menpeko pertsona helduak, betiere bizikidetzaren unitate berekoak baldin badira. Ondorio horietarako hauek dira emakumeen kargura bizi diren adin txikikoak: artatutako emakumearen guraso-agintearen, tutoretzaren, kuradoretzaren edo zaintzaren baitan dauden adin txikikoak, eskubide horiek emakumeak soilik eta modu eraginkorrean erabiltzen dituzte, edota eskubideak beste pertsona batekin batera partekatzen dituzte, azken kasu horretan arrisku egoerak saihesteko pertsona horiek emakumearekin bizitzea komeni dela uste bada edo eskumena duen aginpideak horrela erabaki badu.

4.- SARTZEKO BALDINTZAK

Abegi-etxe horretara sartzeko eskatzaileek autonomoak izan behar dute, hau da, beren kabuz baliatzeko gai izan behar dute, eta ezin duten inolako droga-menpekotasunik izan ez eta buru-gaixotasun larrikeria ere.

Segurtasunez bizitzeko ordezko beste etxebizitzarik ez izatea edo berehala etxebizitza izateko aukerarik ez edukitzea edo etxebizitza izanda ere, ordezko etxebizitza hori erabiltzea egokia ez izatea.

Abegi-etxea dagoen herriko erroldan izena emanda egotea, edo, lankidetzaren printzipioa aplikatuta, EAEko beste edozein udalerritako erroldatan izena emanda egotea. Bigarren kasu horretan, gai horretan sartuta dauden instituzioen arteko lankidetzaren, eta harrerak sortutako gastuen finantzaketa artatutako emakumeari kalterik ez egiteko moduan burutuko da, eta instituzioek hartu behar dituzten erantzukizunetan desorekarik ez sartzeko moduan burutuko da.

Estatuko beste autonomia erkidegoren batean erroldatuta egon eta beren errolda-lekua aldatu nahi ez duten pertsonen aurreko atalean xedatutakoa aplikatuko zaie, bai tartean sartuta dauden instituzioei buruz esandakoa bai egonaldiak sortutako gastuen finantzaketari buruz esandakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta ez dauden pertsona eskatzaileak artatu egingo dira hasiera batean, baina autonomia erkidego honetan erroldatzeko izapideak hasi beharko dituzte abegi-etxean jarraitu nahi baldin badute.


5- SARTZEKO PROZEDURA

Oinarritzko Gizarte-zerbitzuetan egin behar da abegi-etxera sartzeko hasierako eskabidea. Berehala bideratuko dute eskabidea udaleko gizarte-langileek. Beharrak balioetsita aztertuko dira inguruabarra eta egoeraren ezaugarriak, eta, hala badagokio, plan indibiduala edota familiarra eginda artatuko da.

Gizarte-langileak nahitaezko txostena egin behar du. Honako hauek jaso behar dira txosten horretan:

- Artatu behar diren pertsonaren edo pertsonen identifikazio-datuak.
- Eskatzailearekin normalean bizi diren gainerako lagunen identifikazio-datuak.
- Harreraren hartzeko arrazoiak.
- Artatutako pertsonen egoera ekonomikoa.
- Artatzea egokia den balioztatu behar da, eta baieztatu bada, abegi-etxean egoteko zenbat denbora emango zaion proposatu behar da.

Txosten hori eta txostenean aipatutako egoerak egiaztatzeko beharrezko diren agiri guztiak sarrera-batzordeak aztertuko ditu.



Sarrera-batzordea honako hauek osatzen dute:

- Udaleko berdintasun-teknikariak
- Udaleko gizarte-langileak
- Zerbitzuko arduradunak
- Berdintasun Saileko ardura duen udaleko kideak
- Emakumearen alorrarekin zerikusia duen udalerriko edozein taldetako ordezkari bat, aukeran.

Sarrera-batzordeak funtsezko funtzio hauek ditu:

- Emakumeak artatzeko abegi-etxe zerbitzuaren onuradunak izendatzea.
- Etxebizitza horretan pertsona batek zenbat denbora egin dezakeen erabakitzea. Horretarako kontuan hartuko du kasu bakoitza.
- Zerbitzuaren onuradun den pertsonak udal-aurrekontuaren kontura mantenua beharko duen erabakitzea edo bestelako laguntzarik, ekonomikoa edo asistentziatzakoa, beharko duen erabakitzea.
- Etxebizitza, orokorrean edo egoera zehatzetan, modu egokian erabiltzen duten balioestea.
- Arautegi hau interpretatzeko garaian sor daitezkeen gatazkak edo zalantzak argitzea eta ebaztea.

Sarrera-batzordeak proposamena eskumena duen erakundeari igorriko dio, horrek ebatz dezan.

Azkenik eskumena duen erakundeak ebazpen arrazoitua egingo du, eta aldi baterako artatze-zerbitzua izateko eskaera onartu duen edo ez esan behar du.

Eskaerari sarrera eman eta gehienez ere hilabeteko epean egin behar da ebazpena. Epea eten egingo da eskaerak konpondu behar direnean, eta etenda egongo da jakinarazpena egin eta hori bete bitartean, edo, bestela, emandako epea igaro bitartean.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro eta ebazpenik egin ez bada, ebazteko dagoen betebeharrari kalterik egin gabe, eskaera ez dela onartu ulertu behar da, eta interesdunak berraztertze-errekurtsoa jartzeko edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko eskubidea izango du.

Edozein kasutan ere, etxera sartu baino lehen I. eranskinean datorren agiria izenpetu behar du nahitaez onuradunak. Eskatzaileak agiri hori izenpetzen ez badu zerbitzuari uko egin diola ulertuko dugu.

PREMIAZKO PROZEDURA.

Behar larria eta premiazkoa duten kasuak aintzat hartzeko, beharra edo egoera Oinarrizko Gizarte-zerbitzuek duten jendaurreko ordutegitik kanpo gertatzen bada, eskaera udaltzainei egin behar zaie. Horiek arduratuko dira ostatu emateaz eta horiek emango die zerbitzuaren arduradunari jardueraren berri, gero sarrera-batzordeak azter dezan.

Eskatzaileak babes-etxera sartu eta gehienez ere hirurogeita hamabi (72) ordura Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetara joan behar du, balorazioa egiteko eta eskariari egindako harrera balioesteko. Era berean, sarrera-batzordea deituko da egoera balioetsi dezan.

Premiazko prozedura bidez izandako sarreraren ondoren onuradunak uko egiten badio espediente hasieran edo bideratzean laguntzeari, edota espedienteari jarraiki aurkeztutako eskaera ez onartzea



ebazten bada, zerbitzua utzi egin behar duela jakinaraziko zaio, eta, horretarako, jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita gehienez ere 10 egun natural dituela esango zaio. Hori egiten ez badu nahitaez aterako dute eskatzailea babes-etxetik.

6.- BABESA IRAUNGITZEA.

Dagokion espedientea bideratu ondoren, eta sarrera-batzordeak proposatua, zerbitzu-ematea aurreikusitako data baino lehen iraungi daiteke, eskumena duen organoak egindako ebazpenaren bidez eta interesdunari entzun ondoren. Ebazpen hori onuradunari jakinarazi behar zaio.

Zerbitzua emateari honako arrazoi hauek tarteko utz dakioko:

- Abegi-etxean egoteko aurreikusitako denbora bukatu delako.
- Erabiltzaileak zerbitzuari uko egin diolako.
- Erabiltzailea hil egin delako.
- Zerbitzu-ematea eragin zuen beharra desagertu delako.
- Zerbitzua emateko kontuan hartutako datuak ezkutatu dituelako edo egia esan ez duelako.
- Zerbitzua izateko eskatutako baldintzaren bat bete ez duelako.
- Zerbitzu-emateari jarraipena egiteko eskatutako agiriren bat aurkeztu ez duelako.
- Beste erabiltzaile batzuk fisikoki edo psikikoki eraso dituelako.
- Arautegi honetan aurreikusi diren erabiltzaileen beste betebeharrak batzuk behin eta berriz bete ez dituelako.
- Bi egun baino gehiago igarota, errekurtsorik ez dagoelako eta, horretarako, ospitaleratu egin dutela edo beste arrazoi nagusiago batzuk dituela egiaztatu ez duelako. Epe hori zabaldu egin daiteke egoera berezietan, eta egoera horiek dagokion txosten teknikoaren bidez egiaztatu behar dira.
- Arautegia bete ez duelako eta ez betetze horrek etxebizitzan hartutako beste pertsona batzuk arriskuan jartzea eragin duelako.

Zerbitzu-ematea iraungi dela aitortu ondoren, erabiltzaileak ebazpenean jaso den egunerako utzi behar du etxebizitza. Epe hori ez da inoiz jakinarazpena jaso den egunetik zenbatzen hasita 10 egun natural baino gehiago izango. Epea igaro eta etxebizitza utzi ez badu etxebizitza husteko egoki diren legezko neurriak har daitezke, betiere, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak araututakoa bete bada.

7.- ERREGIMEN EKONOMIKOA


Etxebizitzako mantentze-gastu guztiak Udalaren Gizarte-zerbitzuek ordainduko dituzte, eta etxebizitzan hartuta dauden pertsonak ez dute dirurik ordaindu behar zerbitzua erailtzeagatik. Lanbide-arteko gutxieneko soldataren pareko sarrerak dituzten erabiltzaileek, berriz, bere eta bere menpeko pertsonen mantentze-gastuak ordaindu behar dituzte.

Mantentze-gastuei aurre egin ezin diotenei dagokienez, sarrera-batzordeak diru-laguntza ematea erabakiko du mantentze-gastuak estaltzeko.

8.- FUNTZIONAMENDU ETA BIZIKIDETZA ARAUAK

Abegi-etxeak 5 pertsonentzako lekua du, helduak, haurrak eta nerabeak kontuan hartuta. Muga horren barruan, gehienez ere bi bizikidetzak unitate egon daitezke, pertsona bakarrek bi bizikidetzak unitateak direnean izan ezik. Kasu horietan bi unitatek baino gehiagok bete dezakete etxebizitza.

Dena dela, familia-unitateak bost kide baino gehiago dituenetan, etxebizitzan guztiak sartu ahal izango dira, eta horretarako behar diren neurriak hartu behar dira.



Sartzeko unean edo lehenago, artatutako pertsonak horretarako baimena eman behar du idatziz eta etxebizitzaren barne-erregimenaren arautegia onartu duela adierazi behar du. Idazki horretan arautegia onartu duela azaldu behar da zehatz-mehatz eta sartzeko eskaera onartzen ez bada eta kontrako ebazpena jasotzen badu etxebizitza utzi egingo duela ere onartu behar du idatziz.

Sartzeko unean, abegi-etxeko giltzak emango zaizkio artatutako pertsonari, eta etxebizitza hori bizikidetzako beste unitate batekin batera partekatu behar badu, bere bizikidetzak-unitateak erabiliko dituen geletako giltzak ere emango zaizkio.

Etxebizitza horretan bizi direnek ezin dituzte pisuko giltzen kopiak egin ez eta giltzak beste edonori utzi ere. Giltzak onuradun bakoitzaren erantzukizun dira.

Zerbitzua erabiltzen amaitzen duenean, erabiltzaileak sartu zenean zuen bizigarritasun baldintza berberetan utzi behar du etxebizitza, eta etxebizitzaren arduradunak egoki den egiaztapena egin ondoren erabiltzaileak giltzak itzuli behar dizkio.

Ezin du ez titularrak ez beste inork ere helbide honetan biztanleen udal erroldan izenik eman.

Aldi baterako egoteko muga ezin da inoiz familiako etxebizitza erabiltzeko esleipena erabakiko duten prozedura judizialen ebazpena ematen den eguna baino txikiagoa izan, erabiltzaileak hala eskatzen duenean izan ezik. Dena dela, lau hilabete igaro ondoren, ostatu emateko beharra beste baliabide edo programa batzuen bidez estal daiteke, betiere, beharrak balioetsi eta hori egin behar dela ikusten bada; bestela, hasieran ezarritako epea luzatu egin daiteke pertsona etxean hartzeko arrazoiak irauten badute.

8. A.- FUNTZIONAMENDURAKO OINARRIZKO ARAUAK

1.- Abegi-etxean bizi direnek etxebizitzako gelak, objektuak, aparatuak eta tresnak behar bezala erabili behar dituzte, eta behar bezala mantendu behar dituzte, eta galdu edo behar bezala erabili ez dituztelako horiei eragindako kalteen erantzule dira.

2.- Etxebizitza bizikidetzak-unitate desberdinetako kideek erabiltzen badute, bizitza kolektiborako arauak bete behar dituzte bai garbitasunari, bai higieneari bai ordutegiei eta abarri dagokienean. Bakoitzak bere gela garbitu eta txukun eduki behar du eta, era berean, bizikidetzak-unitateko objektu pertsonalen arduradun ere badira.


Etxeko lanei dagokienez, hau da, erabilerako elementu komunei dagokienez (korridorea, halla, egongela, sukaldea, komuna eta abar) akordio batera iritsi behar dute eta errespetatu eta bete egin behar dute akordioa.

Era beran, Bizilagunen Erkidegoa arautzen duten arauak ere bete behar dituzte.

Artatutako pertsonen artean gatazkarik sortzen bada, etxebizitzaren arduradunak aztertuko du egoera eta egoki diren neurriak hartuko ditu. Neurri horiek onartu eta bete egin behar dituzten etxebizitzan bizi direnek.

3.- Pisan bizi direnek ezin dute obrarik egin. Instalazioak matxuratzen badira zerbitzuaren arduradunari esan behar diote berehala, eta horrek konponketak egiteko partea egingo du. Era berean, baimenik gabe ezin da ez altzaririk ez etxeko tresnarik sartu etxebizitzara. Erabilera pertsonalekoak soilik daude baimenduta.

4.- Erabat debekaturik dago etxebizitzaren barruan substantzia toxikoak, drogak eta abar izatea eta kontsumitzea. Era berean, debekatuta dago etxebizitzan material sukoiak, leherkorak eta higienearen aurkakoak izatea. Abegi-etxearen erabilera familia-etxebizitza izateko da, eta, beraz, etxebizitza horretan hartutako inork ezin du legeak baimentzen ez duen jarduerarik egin (finkarentzat kaltegarri direnak, arriskutsuak, deserosoak, gogaikarriak edo osasunaren kalterakoak) ez eta irabazi-asmoa duten jarduerarik egin ere.




5.- Udalak ez du erantzukizunik abegi-etxean bizi direnek dirua edo baliozko objektuak galtzen badituzte.

6.- Zerbitzuaren ardura duten udal-langileak edo jarraipen-batzordeak baimendutako beste pertsona batzuk etxebizitzan sar daitezzen utzi behar dute. Dena dela, intimitatea errespetatu behar da beti, eta horretarako, tratamendu berezia behar duten salbuespenezko kasuetan izan ezik, bi aldeek bisita horietarako ordutegia hitzartuko dute.

9.- ONURADUNAK DITUEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

ONURADUNAK DITUEN ESKUBIDEAK

1. Izaera orokorrez, artatutako pertsonak apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak aurreikusitako eskubideak dituzte. Horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu da.
2. Berariazko izaeraz, Dekretu honetan araututako artatze-bideen bidez babestutako pertsonak honako eskubide hauek dituzte:
 - a) Baliabidean egoteko eskubidea, Arautegi honetan ezarritako egotea amaitu dela azaltzen duten arrazoiren bat ez dagoen bitartean.
 - b) Bizikidetzaren unitate bereko kide guztiak elkarrekin egoteko eskubidea. Horretarako baliabide berean hartu behar dira.
 - c) Pentsamendu-, iritzi-, ideologia- eta erlijio-askatasuna errespetatzeko eskubidea.
 - d) Intimitate pertsonala eta familiarra errespetatzeko eskubidea.
 - e) Konfidentzialtasunerako eta bere intimitateari eragiten dioten izaera pertsonaleko datuak babesteko eskubidea.
 - f) Artatzeko baliabideko gelak eta bertan dauden erabilera komuneko objektuak, ekipamenduak eta tresnak erabiltzeko eskubidea.
 - g) Jite sozial, psikologiko, kultural eta judizialeko nahiz osasun- edota hezkuntza-jiteko baliabideei buruzko eta bere profilerak eta beharretara egokitzen diren beste baliabide batzuei buruzko informazioa jasotzeko eta horien gaineko aholkuak jasotzeko eskubidea, baita horiek eskuratzeko zer egin behar den jakiteko eskubidea ere.
 - h) Iritzia emateko eskubidea baita baliabidearen funtzionamendua hobetzeko ardura duen instituzio edo erakundeari iradokizunak aurkezteko eskubidea ere. Honako bide hauek erabilita: erreklamazio-liburua, iradokizunen gutunontzia eta sarrera-batzordean zuzenean edo zeharka parte hartuta.
 - i) Aurkeztutako iradokizun edo kexen gaineko erantzuna jasotzeko eskubidea. Erantzuna baliabidearen ardura duen instituzioak edo erakundeak eman behar du, apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu duenak, ezarritako prozedura aplikatu dadin eta dekretu horretan ezarritako epean barnean.



- j) Gizarte-hezkuntzako programa bat izateko eskubidea eta artatzeko baliabideetan dagoen bitartean laguntza izateko eskubidea.
- k) Idatziz baliabidea behar duela dioen eskaera egiteko eskubidea eta erantzuna idatziz jasotzeko eskubidea bost egun natural baino lehen.
- l) Harrera indibiduala, familiarra eta pertsonalizatua izateko eskubidea.
- m) Bere borondatez zerbitzua erabiltzeari edo etxebizitza horretan egoteari uko egiteko eskubidea.
- n) Eskubide hauen berri erraz ulertzeko moduan jasotzeko eskubidea eta horiek gauzatzeko bideak zein diren jakiteko eskubidea.

ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

1. Izaera orokorrez, artatutako pertsonak apirilaren 6ko, 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu duenak ezarritako betebeharrak dituzte.
2. Berriazko izaeraz, dekretu honek arautu dituen artatzeko baliabideetan hartutako pertsonak honako betebeharrak dituzte:
 - a) Sartzeko eskaera-agiria sinatzea eta sartzea baimentzen ez duen ebazpena izanez gero etxebizitzatik ateratzeko konpromisoa hartzea. Era berean, barne erregimeneko arautegian ezarritako arauak eta eskaera-agirian ezarritakoak bete behar dituzte.
 - b) Oinarrizko Gizarte-zerbitzuek eskatutako agiriak dagokion epean aurkeztea.
 - c) Zerbitzu hauen erabilera eragin duten egoera aldatzeko beharrezko diren administrazioko kudeaketak edota kudeaketa judizialak edota beste era batekoak egitea.

Bere seme-alaben edo bere kargura dauden beste pertsona batzuen erantzule izatea. Etxe honetan bizi diren neska-mutilak bere amaren ardurapekoak dira. Ama horiek etxean bizi diren beste ama batzuekin koordinatu daitezke haurrak zaintzeko. Umeak ezin dira etxebizitzan bakarrik utzi, ez egunez ez gauzez.

Gaua etxetik kanpo pasatzea ezinbestekoa dutenean, etxebizitzaren ardura duenari esan behar diote.

- d) Baliabidea partekatzen duten pertsonen pentsatze-, iritzi-, ideologia- eta erlijio-askatasuna errespetatzea.
- e) Baliabidearen helbidearen eta telefonoaren berri inori ez ematea. Beste instituzio publiko batzuek helbidea eskatzen dietenean erreferentzia gisa Oinarrizko Gizarte-zerbitzuen helbidea eman behar dute edo horren ardura duen erakundearena, bestela.
- f) Elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako portaera izatea, bizikidetzaz errazteko eta hori bermatzen duten barne-arauak betetzeko.
- g) Zerbitzuan hartuta ez dauden pertsonari edo baimenduta ez dauden langileei baliabidera sartzen ez uztea, baldin eta zerbitzuaren arduradunak emandako baimen zehatza ez badute.

